

EHU

# Udako ikastaroen eskaintza Bilbora ere ailegatu da

**Euskal Herriko Unibertsitateak, BBK Fundazioak eta Bilboko Udalak kultura eta arteari buruzko hiru ikastaro antolatu dituzte**

Erredakzioa • Bilbo

BIARRITZEK eta Iruñeak UEUren eskutik, eta Donostiak, berriz, EHU-renetik; horixe izan da, orain artean, Euskal Herriko udetan kaleetan barrena unibertsitarioak izateko aukera izan duten hiriak. Aurtan, oster, zertxobait aldatuko da kontua: Bilbon ere hiru ikastaro izango dira aukeran, hirurak kulturarekin eta artearekin zerikusi zuzena dutenak.

Hiru ikastaro izango dira: *Makina eszenikoa: drama, espazioa eta teknologia* antzerkiaren gainean, Rosa de Diego dela zuzendari. Emaille, besteak beste, Luis Thenon eta Marcell Antunez antzerki zuzendariak izango dira. Bigarren ikastaroa *Paisaia garaiakidearean arkitektura eta hiri historikoa* izenekoa da. Iñaki Galarragak zuzenduko du eta Peter Eisenman eta Ben Van Berkelen izan gura dituzte parte-hartzaile. Hirugarren ikastaroa, *Eskultura XX. mendean*, Kosme de Barañanoren eskutik etorriko da. Zenbait eskultoreen laguntza izango du horretarako, besteak beste, Koldo Jauregi eta Miquel Navaroren. Antolatzailea Euskal Herriko Unibertsitatea da, eta zuzendariak ere unibertsitatearekin lotura duten lagunak dira. Ikastaroen antolatzaileek azaldutakoaren arabera, uztailearen 5a eta 20a bitartean egingo diren ikastaroak ez dituzte udako beste ezin ikastarorekin lehiatzeko antola-



Antolatzaileak baikor dira, Bilboko Udako Ikastaroek arrakasta eta etorkizuna izango dutelakoan.

## Bilboko Udako Ikastaroak ez dira beste ezin udako ikastarorekin lehiatzeko antolatu; bereziak dira

tu, baizik eta Bilbok «eskaintza propioa izan dezan», azken aldian lantzen ari den esparruaren baitan.

### Gaztetxea izan zen eraikinean

Unibertsitatearekin duen lotura, dena dela, ez da horretan geratzen: ikastaroak egiteagatik, kredituak eskuratuko dituzte urtean

zehir unibersitario diren ikasleek: 3 kreditu ditu eskulturaren gaineko ikastaroak, eta beste biek, aldiz, bina. Ikastaro hauek gaztelaniz egingo dira, itzultzailea jarririk beste hizkuntzaren bat erabiltzen duen emaileri. Matrikula epea zabalik dago; itxi, berriz, ikastaro bakoitzean 50 lagun matrikulatzen direnean itxiko da. Antolatzaileen ustetan, ikas-

taro guztiak beteko dira. Prezioari dagokionez, eskultura eta arkitekturaren gainekoek 14.500 pezetakoa dute, eta antzerkiari buruzkoak, berriz, 8.700 pezetakoa.

Ikastaroen egoitza, oster, ez da unibertsitatean egongo: Bilboko gaztetxea hartu zuen eraikinean egingo dira, hau da, orain «nagusientzako unibertsitatea» hartzen duen eraikinean.

## IKASLE ABERTZALEAK

Erredakzioa/Bilbo • Ikasle Abertzaleak erakundeak (IA) unibertsitatean amaitzear den ikasturtearen balorazioa egin du.

Erakunde horretako kide Nerea Redondok azaldutakoaren arabera, «IAk balorazio ona egiten du 1999-2000 ikasturtearen gainean, batez ere Euskal Unibertsitatearen premia komunitate unibertsitarioaren agendan sartzea lortu dugulako». Redondok azaldutakoaren arabera,

## Amaitzear den 1999-2000 ikasturtearen balorazioa egin berri du Ikasle Abertzaleak erakundeak

«Iaren mobilizazio gaitasunak lortu du beste sektore askok ere Euskal Unibertsitatearen aldeko jarrera hartzea».

### Euskara baino gehiago

«Orain dugun unibertsitate ereduak ez digu balio ikasleoi, eta euskaldunoi gutxiago».

dio IAko kideak. Horrela, bada, IAk lortu gura duena «euskaraz egiten duen unibertsitatea baino gehiago da: euskaraz egiten duena bai, jakina, baina, aldi berean, unibertsitate demokratikoa, guztion parte hartzea bilatzen duena, demokrazia izanda oinarri». Nolanahi ere, unibertsitate euskalduna lor-

zea «ezinbestekoa» da, Iaren arabera, eta horretarako egiten den borrokan, funtsezko betebeharrak dute fakultateetan antolatu izan diren Euskal Adarra izeneko taldeek.

Barruti bakarra ere izan du hizpide Redondok; «aspaldi proposatu du IAk unibertsitate barruti bakarra, baina Euskal Herrikoa».

laburrean

DEUSTUA

## Europar aitzindari den master bat aurkeztu du unibertsitateak

Ezagutzaren gestioa izeneko master berria aurkeztu du aste honetan bertan Deustuko Unibertsitateak. Europa osoan aitzindaria da master berria, Deustuko Unibertsitateko Soziologia Fakultateko dekanok Francisco Garmendiak aurkezpenean esan zuenez. Antolatzaileen ustetan, egungo gizartea ezagutzaren gizartea da; hori dela eta, gero eta premia handiagoa dago, enpresa eta erakundeetan, zein informazio duten intereseko eta zein ez zehazteko gai izango diren profesionalak trebatzeko, eta horixe litzateke datorren ikasturtean abiaraziko den masterraren xedea. Deustuko Unibertsitateko irakasleekin batera, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko irakasleak ere aritu dira antolatzaile. Eurekin batera, kudeaketa-aholkularitzan diharduen Socintec enpresak ere hartu du parte masterraren edukiak zehaztean. Edonola ere, masterra Deustuan egingo da, 2000-2001 ikasturtean.

NU

## XX. mendearen historia nahasia, aztergai

Nafarroako Unibertsitateko Historia Sailak diplomatura berria abiaraziko du, datorren ikasturteari begira, historiaren alorrean duen eskaintza osatzeko xedearekin. Diplomatura berriaren aztergaia XX. mendeko historia izango da, gaur egungo historia, eta horren haritik izango du izena ere: *XX. mendeko historiaren diplomatura*, hain zuzen. Eskaintzen den titulua hiru ikasturtetan egin ahal izango da, eta Nafarroako Unibertsitatearen titulu propioa izango da. Diplomatura aurkeztean Fernando de Meer irakasleak azaldu duenez, «XX. mendeko gizarteak ia axolagabe ikusten ditu historian inoiz izan diren holokaustorik izugarrienak».